



CRASHED

***BLAS
VALDEZ***

Pine Streeten barrena pankartekin doan taldean ikusi zaitut igarotzen, langile, aktibista eta ikasle nahasketan, «Jail 'em, don't bail 'em» ozen kantatzen duen horretan, eta martxak Wall Street zeharkatu du AIGren eta aldameneko Bank of Americaren eraikinerira iritsi arte, barrikadak eta dozenaka polizia zain dituzten lekura iritsi arte, «Jail 'em, don't bail 'em», koro gero eta haserreagoan bilatu zaitut, «Jail 'em, don't bail 'em», hain da koro indartsua ezen trajez jantziak goietatik atera baitira leihora, beldurrez atera dira, eta neska gazte bati begira jarri, honek bozgorailua hartu eta bere erara jo baitu bankariak erreskatatzearen kontra, eta zure ahotsa entzun dudanean bihotzak jauzi egin dit, jauzi egin dut eta flotatzen ari naiz aurrean, bozgorailua jaitsi eta barrikadak erori diren unean bertan, denak korrika doaz norabide orotan, eta kolpeak hasi dira, bat, bi, hiru gorputz saihestu ditut baina ez zaitut aurkitu, zoro moduan nabil zure bila harik eta goitik heldutako kolpea sentitu dudan arte garondoan, harik eta erori eta lurretik zure bozgorailua ikusi dudan arte hara eta hona dabiltzan zangoen artean, odol beroa bizkarrean beheara doakit eta zeharka ikusten dut AIGren logotipoa sarrera gainean, *Manchester Uniteden kasakak estaltzen dituen AIGren logotipoa, Ametsen Antzokia betetzen ari den jarraitzaile samaldaren bular gorria estaltzen duena, Cristiano Ronaldo eta besteak kantxara ari dira irteten, gutxi falta dugu hasteko baina tuneletan segitzen dut zain gorrien museotik kanpo, zain, eta iristen zaren bitartean trofeo ilara artean paseoan nabil, Uniteden mitoen argazkien artean, kanpoan txilibitu-hotsa deiadarrez osatua, kanpoan dena ari da hasten, pilota badoa, eta hegan egiten du, barnean zure zain egoteko nire jolasa amaitzen den bitartean, ez zara iritsiko, badakit, Byrne, Jones, Colman iritsi ez ziren bezala, pentsatu gabe irakurtzen ditut 58ko hondamendiko izenak, Taylor, Whelan, Pegg, Bent, Municheko hondamendian eroritako Gorriak, kanpoan elur-ekaitza baina ni pozik, pilotuak atzerapenaren berri eman digu baina nik irribarrez jarraitzen dut, oraindik ezin dut sinetsi Charltonengandik, United osoarengandik oso ilara gutxira eserita nagoela eta ni autografoak ezker-eskuin eskatzen hasteko gogoz nago, kakahueteak alde batean jarri eta sinadurarako nire ezpainzapitxoan eramateko, eta azkenean altxatu egin naiz, baina ezerezetik heldu den ahots batek hots egin eta esertzeko eskatu dit, azafatak ustekabeen harrapatu nau bizkarraldetik, eskuak gora eta horrela, babesgabe, berbertatik, maitemindu egin naiz, zure ahotsa nahastu egin da hurrengo aireratzea iragartzen duen pilotuarenarekin, korridorean aurrera zoaz irribarreak banatuz eta niri ahaztu egin zait United, ahantzi eta begiradaz segitzen zai-*

tut, lelotuta, eta ia-ia ez naiz konturatu ezen lehen, bigarren eta hirugarren aireratze ahaleaginean hegazkinak garbitu egin duela izoztu samartuta dagoen pista, ez du ia-ia altxatzea lortu eta etxe bat gurutzatu zaio bidean, hegal bat txikitu eta pilotuak eskuinera biratu du hegazkina, dena bortizki ari da biraka eta korridorean hegan ikusi zaitut, zure gorputza orban baten antzera igaro da hegazkin hondorantz, paretaren kontra jotzean jostailua dirudien honen hondorantz, beste pareta bat, eraikin oso bat eta gar artean bilatzen zaitut, nirekin batera infernuan harrapatuta dagoen Uniteden taldearen artean, eta München ari gara hiltzen, *zinean sartzean zeharka begiratuta ikusten dudana Eric Banarekiko posterra, berandu iritsi naiz emanaldira eta ilaraz ilara bilatzen zaitut frapuchino bat miazten ari naizela, atzean pantailan fedajinen komandoa Hiri Olinpikoan sartu eta bestatik bueltan datozen atletekin nahasten dituzten bitartean, ez naiz Spielbergen hain zale sutsua baina ikusi nahi zintudan, ilunean batez ere, emakume batek esertzeko eskatu dit, pantaila estaltzen omen diot-eta hain zuzen komando palestinarrek kirol-jertseak erantzi eta isilean Connollystrasse zeharkatzen duenean, nire begiak aretoko belztasunera ohitu orduko ari naiz atzera zure bila ilaraz ilara, fedajin mozorrotuek dagoeneko AK-47ak eskuan dauzkatela, lehen atea zabaldu eta di-da batean hil dute lehena, israeldar talde osoa ia-ia lotan harrapatua, eta gauerdian Barak ejerzitoaren SMS bat jaso dut, nire etxetik irteteko abisua ematen didala, irten eta korrika has nadila hegazkinak datozelako eta nire etxea miran dagoelako, xehetasun txikia, baina, etxean ez nagoela da, zu bakarrik, zaurituta, egongelan hiltzorian gainera botiken, aurkitzerik izan ez dudana pastillatxoekin zain, baina hala ere itzuli egin naiz korrika eta Gaza zeharkatu dut, gaua dudala babesle bakar, israeldar lehegailuek zulatutako gaua, etengabe zulatua eta deiadarrak ditut bidaide, leherketa hurbil batek eraikin bat zapaldu eta belarriak lehertu dizkit, gor utzi nau eta neure buruari ere ez diot aditzen deiadarka hasi naizenean nire egongelako hondakinak ikusi ditudanean, nire etxe osoa suzko eta ke zurizko euri arrotz batek bilduta ikusi dudanean, *irudiek argi eta garbi erakusten dute fosforo zuria Fallujahn erortzen eta hala eta guztiz jeneralak ukatu egiten du, eszena hain da zentzugabea ezen telebistaren bolumena igo dut, BBCren elkarrizketagileak gero galdetu egin dio Abu Ghraibi eta duela gutxi argitaratu atera diren argazkiei buruz, dominaz jositako tipoak edozein gauza esaten du pantailan presoak ikusten dugun bitartean txakurrentzako lepokoa jarrita daudela, eta gorputz biluzien piramideak, tipo txanoduna kutxa baten gainean geldirik, telebis-**

ta aurrean gauden guztiok harri eta zur uzten gaituzten argazkiak, elkarrizketagileak soken kontra dauka eta orain Guantanamo motik irtendako salaketa berriak aipatu dizkio, kaiolatan sartutako gizon talde jantzi laranjadun bat dugu bideoan, baina hori dagoeneko ez dut ikusten burua zapi batez estali didatelako eta aurpegian, ahoan eta sudurrean ura bota didatelako, dena urez bete da eta bitzta estaltzen ari zait, ostikoka ari naiz, ahal bezala saiatzen naiz tortura-mahaitik askatzen eta eskumutur bat hautsi zait, azkenean hezurra hautsi zait eta mina irentsi egin dut itotzen nauen ur-zorrotadarekin batera, jenerala defendatu egiten da tortura salaketan aurrean, terrorismoaren kontrako borroka hartzen du babes, CNNren elkarrizketagileari azalpenak ematen dizkio irailaren 11ren osteko munduari buruz, hegazkinak eraikinaren kontra jo du eraikinaren kontra jo du eraikinaren kontra jo du, behin eta berriro ikusten dudana irudia loop amaigabe bat da, jendeak ikaraturik begiratzen du gorantz New Yorkeko kaleetan, eraikinak gero erori egiten dira erori egiten dira erori egiten dira eta ezin dut ikusten ari naizena sinetsi, eta Pixien kantua hasi da azken eszena erromantiko horretan, Edward Norton eta Helena Bonham Carter eskutik helduta maitemindurik ikusten ari direla finantza sektorearen hondoratzea bere inguruan, where is my mind eta beste leherketa bat, kreditu-txartelenak hondoratu egin dira, you met me you met meat a very strange time in my life, erortzen ari dira, erortzen ari dira, eta Dorre Bikietatik gutxira hegazkin bat Pentagonorantz doa hegan, ez dut ikusten baina irailaren 11 horretan imajinatzen dut, ehiza-hegazkin bat lastertasun biziz dabil Moneda gainean eta leherketa batek Jauregiko leihoak lehertu ditu, eraikina sutan dago ke zuriz, ke beltzez inguratuta, urrunean ikusten zaitut aparkatutako auto baten azpian sartuta, kolpisten tankeetatik ezkutuak hauek hurbil apuntatzen-su egiten ari direla, su gehiago Monedaren kontra, Allendek ez du baina etsitzen, etsiturik leihora atera eta keinuak egiten dizkizut sartu naizen negozioko leihotik, baina ez nauzu ikusten beste Hawker bat izugarrizko lastertasunez igaro delako hegan eta dena dardarka ari da, ikara batek hartu dit gorputza, negoziotik atera eta deiadar egin dizut soldaduek Jauregiko leihoeetatik gas negar-eragileak botatzen dituzten bitartean, zugana hurbildu naiz korrika erdi makurtuta eta metro gutxi igarota bala batek bizkarrezurra txikitu dit, soldadu batek atzetik harrapatu nau uste-kabea eta tanke bat ari da kale erditik hurbiltzen, txinatar tanke ilara bat gizon arrunt baten kontra, erronka bota die-eta Pekin erdian, aurre egin die eta eragotzi Betiko Bakearen Etorbide Handian aurrera egin dezaten, zutabeko lehen tankea saihesten saiatu da

baina alkandora zuriz jantzitako gizon bakar hori bidean jarri zaio atzera, supermerkatuko bi poltsa besterik ez dituela arma tankeak -gelditzeko-begiradarekin batera, hurbileko eraikin bateko leiho batetik tele lens doitu eta praka ilunez jantzitako gizon horrengana bideratu dut, zoom in zoom in zoom in egin eta *Google Earthen irudia zure herrialdera, zure hirira, zure kalera hurbiltzen da eta horrela, klik, klik, klik, erraz-erraz, zure etxeko teilatua ikus dezaket nire pantailan, bihotza izorratu zenidan espaloia, bigarren hezkuntzan gurekin zihoan bizilagunaren etxea, gogoan al duzu?, bidali ninduzunean, hirugarreneko alproja hori gustatzen zitzaizula esan zenidanean nire barnean zerbait lehertu zelarik bere leihotik espiatzen gintuen potolo hori, irudia mugitzen dut saguarekin hiru kale eta erdi behera harik eta nire haurtzaroko etxeko teilatura iristen naizen arte, atzeko lorategitxoa, orduak eta orduak ematen nituen-eta bertan airea galdutako baloi bat paretaren kontra jotz, amaren deiadar eta begiradaz kokak, letra-zopa, irin-tortilla egin berriak hartzera joateko eskatzen zidala, eta irudi guztiak datozkit gogora, joan nahi ez dudana bide batetik eramaten naute eta bizkor-bizkor zoom out pare bat klikatu dut, leloturik nago pantailara begira, auzo zaharraren airetiko ikuspegia, orban berdea, elkarri lehen aldiz musu eman genion zuhaizti zaindu gabea eta min txiki batek zeharkatzen nau, zure uniformeak ikusten dut atzera, eskolako zure gonatxo sexya eta zoom out zoom out zoom out, mundu puta honetatik irten nahi dut, bizitzatik zoomoutizatu nahi dut, nire pantaila estaltzen duen lurglobo hau paretaren kontra jo ostikoz, behin eta berriro ostikoz jo globo hori hustu arte, eta satelite militarren irudia zitzu bizian hurbiltzen ari da eta zoom in egin du Afrika iparraldean, hiri horretan, meskitatik oso urrun ez dagoen lur etze horretan, irudia bizkor-bizkor hurbildu da harik eta miran kamioneta batean urruntzen ari den gizon bat daukan arte, offeko ahots batek zerbait esan du ingelesez feedback arin baten artean, beste baten ahotsak agindua eman eta misil bat erori da zerutik eta milaka zatitan txikitu du orain lurrean orban beltz bat, ikazu bat, Rorschach orban baten antzekoa besterik ez den gizona, psikiatrak erakusten didan orri bateko orban beltza eta berriro galdetu dit zer den ikusten ari naizena, nazkatuta nago jada eta gehiegi estutzen nau alkandora hertsagarriak, baina jokoarekin segitzen dut, begirada fokatu eta ikusten ari naizena esan diot, goiko aldean kalean nago, lurrean, odolusten ari naiz, hainbat hezur ditut hautsita, baina hala ere orbanaren beheko alderantz iristen ari naiz saiatzen, arrastaka, han baitago nire andregaia lurrean, odolusten ni bezala, gentozen motorra urrun dago jada, txatarra bes-*

terik ez da orritik kanpoko tokiren batean, nire andregaiia ez da jada mugitzen, odoletan dago bakarrik, eta ongi asko dakit oso segundo gutxi barru hil egingo dela eta ideia kurtsi bat sortu zait, filmetakoen antzeko bat, harengana hurbildu eta belarrian maite dudala esateko, azken maite zaitut bat esateko, dena laburtuko duen maite zaitut bat, horregatik ari naiz arrastaka hilzorian den neska eder horrenganaino, burua biratu diot, aurpegiko odola garbitu diot pixka bat eta maite dudala esaten saiatu naiz, ez zaizkit ordea hitzak ateratzen, jelatinazko sentitzen dut ahoa, odolez blai, eta apenas konturatzen naizen mihirik ez dudala, nik neuk mihiari kosk egin diodala motorretik erori naizenean, lurraren kontra jo dudanean, nik neuk moztu dut mihia eta orain ezin diot nire andregaiari sentitzen dudana esan, etsiturik batera eta bestera begiratu eta nire mihia ikusi dut nagoen tokitik metro batzuetara botata, bitxi, niri barre eginez bezala, gero nire andregaiari atzera begiratu eta dagoeneko ez dut ezagutzen, odolak aurpegia estali dio atzera eta begietan ez du jada bizirik, psikiatrak zerbait apuntatu du bere koadernotxoan eta hurrengo orria erakutsi dit, hurrengo orbana, orban bat mihise batean, orban asko MOMAn zintzilikatutako Pollocken mihise batean, keinu bat egin eta hurrengo aretora igaro naiz, orduan begirada altxatu eta irribarre egin dut paretan gau izartsua, zeruko kolorezko zurrunbiloak, ilargi argitsua, orezko ehundura ikustean, eta nire aldamenean geldirik dagoen turista pare batek Van Goghen belarria aipatu du, *Kyle MacLachlanek sorta hutsal batean aurkitu duen belarri moztu bat, baina ez naiz eszena horren bila ari eta forward sakatu dut, VHS aurrera doa karranka eginez Blue Velvet ahapetik kantatzen ari naizen bitartean eta ia-ia pasatu egin zait, baina play sakatu dut Isabella Rossellini, jantzitegitik ikusten dugun bitartean, arropa eranzten hasi denean, ikusten dut eta nire paretan zintzilik dagoen Casablancaren posterrari begiratu behar diot ezinbestean, Isabella behin betiko bere amaren aurpegiaz, Ingrid eta Bogart aireportuan Naziei ihes eginez, zuri-beltzezko agur hori, poltsikotik zuhurki ateratzen dudan argazkia bezala, biok geldirik gaude fortunaren gurpilaren parean, zoriontsu, flotatzen, zure aurpegia ikusten dut, zure irribarrea, eta bat... bi... hiru segundo luzez bakeak hartu dit barrena, lasaitzea lortu dut harik eta olatu batek ontzi txikiaren kontra bortizki jo eta argazki zimurtua askatu dudan arte, parean geldirik dagoen soldaduak nahi gabe zapaldu du nahita, makurtzeko puntuan nago baina sarjentuak agindua eman eta dena bizkortu da, konpอร์ตa ireki eta alemaniar bala-zaparrada batek inguratu gaitu, metraila-euri batek bular-aurpegia lehertu die uretara jauzi egindako lehenei*



eta orain ahuspez ari dira flotatzen hondartzarantz, *PlayStationen kontrol-botoi bat sakatu dut eta ekintza orain hirugarren pertsonara igaro da, nire Omahako lehorreratzea jarraitzen dut over the shoulder batetik, hondartzara iristea lortu dut marearekin joan-etorrian da-biltzan gorpuen artean, balak nire buru gainean txistuka, sourround sound bolumen gorenean eta bitartean tatatatatata, tatatatatata, nire Browning automatikoaren zarata ezitia bere ligh-haserrea zaintza-dorretik hondartza garbitzen ari den alemaniar artilleriaren kontra deskargatzen ari dela, adrenalinak saturatu egin nau eta first person shootingera itzuli naiz, tatatatatata, tatatatatata, bizilaguna paretaren kontra jotzen hasi da bolumena jaits dezadan, goizeko ordu biak dira ia-ia eta ni artean ere trantzean, alemaniarren defentsetara hurbiltzen, nire Browningak kaskoa lehertu dio burua atera duen nazi nazkagarri bati, eta tatatatatata, Harrisen 9 mmko erdi-automatikoak eskola ondoko muino berdea garbitu du, tatatatatata-tatatata eta hainbat ikasle erori dira zapien antzera, bideojoko bat balitz bezala, beldur ikaraz nago eta korrika itzuli naiz eraikin barrura, zu zaitut gogoan eta korridore labirintoa zeharkatu dut, Columbine hain handia eta 911ra deitzen ari den maistra bati entzun diot gainetik, eta maistra horrek gero esango zidan Harris eta Klebold ikusi zituenean bideo bat filmatzen ari zirela pentsatu zuela, errieta egiteko irten nahi zuen metrailak leihotako beirak txikitu zituenean, urrunean entzuten dudan metrailak berak, maisu batek jangelako guztiak ebakatu ditu eta ez zaitut aurkitzen, leherketa baten uhin hedakorrak burrunba egin du kutxatilategietan, zoro moduan nabil korridoreetan barrena harik eta norbaitek liburutegian zaudela esaten didan arte, hain zuzen ere Harris ezker-eskuin tiro eginez sartzen ikusi dudan liburutegian, tatatatatata, *armaz jositako pistoladun talde bat sartu da Taj Mahalen lobbyan zu logelatik jaisteko zain nagoen bitartean, komandoa tiro egiten hasi da berehala, bat-batean eta ezerezetik heldutako bala-zaparrada batek zulatu du nire aldamenean eseritako gizonaren egunkari irekia, Obamari buruzko zerbait lasai irakurtzen ari zen tipo trajedun bat baitzen eta tatatatatata, tatatatatata, beldurrak akabatzen nagoela jauzi egin dut aulkian eta korrika abiatu naiz eskailera hurbilerantz, beltzez jantzitako bi gizonetzko aurrerantz doazen unean nire atzean, topatzen dituzten guztiak akabatzen dituztela, eskailera-mailak presaka igo orduko konturatu naiz bala-zauri bat daukadala besoan, ez dio baina axola, ahal bezain bizkor igo naiz zutaz eta eztei-bidaia honetaz pentsatzen, amets gisa hasi zen bidaia honetaz pentsatzen eta orain leherketa bat entzun da, ez oso urruti, bosgarren solairura**



iritsi eta korridorera irten naiz besoa odoletan dudala, arnasestuka eta orduantxe ikusi dut igogailuan sartu zarela, deiadar egin dizut eta zuregana korrika abiatu naiz baina ez didazu entzuten, audiofonoak dakartzazu, milaka gauza dakartzazu gogoan eta gure umea izango dena sabelean, atea itxi egin dira ni iritsi eta joka hasi baino une bat lehenago, etsi-etsian igogailuaren botoia sakatu dut baina hau beherantz hasia zen jada infernu-lobby horretarantz, deiadar pare bat egin eta arnasarik hartzeke eskaileretara itzuli naiz, halako batean harrapatu zaitut, jaisten hasi naiz eta bat-batean zoro moduan gorantz datorren turista talde batekin egin dut topo eta alboratu egin naute, eskaileretan behera begiratu eta pistoladun bat ikusi dut, igaro ahala metraila barreiatzen ari dela, apenas lortu dudun hirugarren solairuko korridorera irtetea, pauso batzuk egin orduko emakume gringo batek bere logelako atea ireki eta zeharo ikaraturik begiratu nau, barrurantz egin diot bultzatzea, edukazio handirik gabe eta barruan erori gara biok bala-zaparrada batek korridorea blaitu baino une bat lehenago, atea itxi eta aldi berean beste leherketa batek dardarazi du eraikina, ilehoriari gertatzen ari dena azaltzen saiatu naiz eta keak berehala bete du guztia, handik eta hemendik sartzen da, uste dugu beheko pisua sutan dela eta emakumea histeriko jarri da, behin eta berriro errepikatzen du ez duela hil nahi, terroristei buruzko zentzugabekeria batzuk esan ditu eta leihotik irteten saiatu da, kamerak zoom in egin du Dorre Biki ketsuetako baterantz eta leiho batetik jauzi egin duen emakume bat erakutsi du, gorputz erdi-pixelatu horren erortzea erakusten eta jarraitzen du milaka orduko doala eta beste eraikin baten atzean desagertu den arte, harri eta zur kanalez aldatu eta orduantxe beste pertsona batek egin du salto halaber eraikina hartua duten sugarrek bultzaturik, kamerak gizonari segitzen dio ezin bizkorrago New Yorkeko kalera erortzen ari dela, inoiz parekorik izan gabeko Wall Streeteko porrotak bere onetik ateratako bankari batek 23. pisutik jauzi egin du, eta espalioan geldirik burtsaren kolapsoari buruz irakurtzen ari nintzela, Hoover presidentearen argazkia ikusten ari nintzela Heraldelen lehen orrian, gizon trajedun bat zerutik erori eta Chevy Coupe berri-berri baten gainean hartu du lur, sabaia txiki-txiki egin da eta autoa berehala gelditu da, eta sinetsi ezinik hurbiltzen ari diren oinezko newyorktarren artean, kanpai-kapela pila horren artean ikusi zaitut lehen aldiz, eta maitemindu egin naiz...